

■ K-2 gailurrera iritsi ondoren, larunbatuz geroztik kanpamentu nagusian daude Felix eta Alberto Iñurrategi, Kike de Pablo, Juanito Oiarzabal Juan Tomas eta Josu Bereziartua. ■ Sanferminetarako itzuliko dira. ■ Marron ere Elbruzera abiatzear da.

«Gure bidetik doaz besteak»


Felix Iñurrategi ez dago batere pozik bere igoerarekin, «automata gisan igo baitut»

R. OLASAGASTI / DONOSTIA

Felix eta Alberto Iñurrategi, Kike de Pablo, Juanito Oiarzabal eta Juan Tomas Gutierrez ostiralean K-2 gailurrera heldu eta gero, larunbatean kanpamentu nagusian elkartu ziren Josu Bereziartuarekin. Itzulera prestatzen ari dira orain, Felixek herenegun Euskadi Irratiari esan zion legez, «Sanferminetara joateko edo hondartzan egun batzuk izateko irrikan baikaude».

Beherako bidean, gailurra lortu zuten egun berean, 8.000 metrotan dagoen sorbaldan egin zuten lo (hirugarren kanpamentuan). Felixek azaldu zuenez, «nahikoa arazo izan genuen sorbaldara arte, zati horren zailtasunagatik eta nekeagatik». Eta larunbatean Abruzzos bidea eta eskuineko pilarea edo hego-hegoekialdeko bidea lotzen dituen sorbalda horretatik kanpamentu nagusira jaitsi ziren 3.000 metroko gainbehera gaudituz. Bidean, jakina, kanpamentu guztiak desmuntatu zituzten.

Alabaina, eguraldia ez zuten lagun izan. Behelainoak eta haizeak eskuineko pilare horretan jarritako banderatoak ikustea galarazi zieten eta igoerako bidea topatzeko ere nahikoa ko-



K-2 mendiaren hegoalde izugarria.

meria izan zuten, baina azkenean aurkitu zuten. Zer esanik ez, gorakoan ezarri soka finkoak izugarritzko laguntza izan zirela jaitzieran. Azkenik, arratsaldeko 17.00etan heldu ziren kanpa-

mentu nagusira, Josu Bereziartuaren besarkada jasotzeko gogo biziz. Afaria ere ez omen zen Nolanahikoa izan.

Bien bitartean, Felixek herenegun jakinarazi zuenez, «K-2n

dauden beste espedizioak gure bidea hartzen ari dira, baina eguraldia ez da ostiralean bezain ona, elurra ari du». Espedizio horietako batzuetan nazioarteko mendizale handiak daude, Krzysztof Wielicki eta Voytek Kurtyka poloniarrek zein Bulher estatubatuarrak eredu. Hauek Abruzzos ohizko bidea utzi eta euskal mendizaleek aukeratu bidetik abian dira orain. Gureen maila agerian da beraz.

Espediziokideak pozik daude eskuineko pilarea eta ohizko bidea elkartu eta gailurreraino iristen lehenak izan direlako. Era berean, hasierako helburua bete egin dute, guztiak iritsi baitira tontorrera. Gogoratu behar da Josu eta Juan Tomasek beste talde bat osatzen zutela eta euren asmoa ohizko bidetik igotzea zela. Azkenean, baina, Josuren zaintzarua zela medio Juantok bat egin zuen beste laurakin.

Felix, haatik, ez zen erabat kontent. «Ez dugu guztiok era berean gozatu. Egia esan, automata gisa igo dut, adiskideei batere lagundu gabe, erabat ahulduta bainengoan. Ni nerau, ez nago batere kontent egindako igoerarekin, baina laguneren pozak norbere tristura ahanztarazten du».

Marron, orain MacKinleytik Elbruzera

R. OLASAGASTI / DONOSTIA

Artikoko MacKinley edo Denali (6.193 m.) izan da Marronek aurkitu duen lehen garrantzizko oztopoa. Mendi hau, altueraz Himalayako erraldoiak baino apalagoa izan arren, hagitx gogorra da bertako baldintzak direla eta.

Marron hilaren 8an West Bruttres ohizko bidetik iritsi zen gailurrera, Felipe Uriartek zuzendu taldearekin batera. Ataurera (Gipuzkoa), berriz, gaur astebete ailegatu zen.

Maiatzaren 21an abiatu zen Euskal Herritik eta 22, 23 eta 24an Anchorage (Alaska) egon zen prestaketak egiten hilaren 25ean mendi aldera abiatzeko. «Kanpamentu nagusian, Kalheena glaziarean, hilaren 25ean



MacKinley edo Denari, Alaskako erraldoia.

bertan geunden. Glaziare honek 90 kilometro inguru izango ditzkik eta hiru kanpamentu behar dituk guztia zeharkatzeko.

«Laugarrenean (4.200 m.) al-

tuerako kanpamentu nagusia ezarri genian. Egun pare bateko atsedena hartu eta bosgarrenera (5.200 m.) bi garraialdi egin genizkian». Hor hasi zen eraso.

«Bi sokalditan egin genian saioa. Hilaren 8an arratsaldeko 14.00etan abiatu gintuan. Hotz izugarria egiten zian, baina azkenean iluntzeko 22.00ak aldera bost iritsi gintuan gailurrera».

Parapentea da Lurra espedizio honen elementu bitxienea. «Gailurretik bertatik ezin izan nian hegan egin, baina aurrez 5.000 metrotik laugarren kanpamentura hegaldi txiki bat egin nian».

Egokitze aldetik eta sasoi aldetik ezin hobeto dagoela esan digu Marronek. «Denalira egokitzea zaila duk zazpimilako baten eragin berdintsuak baitizkik».

Orain, hurrengo hilaren 9an Kaukasoko Elbruz (5.633 m.) aldera abiatuko da Josep Antoni Pujante kataluniararekin batera.



IBILALDIAK

▼ Uztailak 2-3

Igorre (Kirol Elkarte): Arratiako IV. Hiru Kurutzeri bira. Irteera Olabarriko txokoan goizeko 4.00etan. Argibide gehiago: 673 65 45 eta 673 62 27.

Sakana (Mendizaleak): Arrarats-Leitza.

Hernani (Mendiriz-Mendi): Bissaurinera (2.669 m.) asteburu osorako.

Andoain (Euskalduna): Larrau mendatea-Otsogorrigaite (1.922 m.)-Belagua. Tel: 59 22 32.

Azpeitia (Lagun-Onak): Azpeiti-Arantzazu. Tel: 81 20 25.

Leioa (Leioa Mendi Taldea): Aralarko Putterrira (1.299 m.).

Idiazabal (Kirol Elkarte): Aralarren gazteentzako akanpada.

Galdakao (Ganguren): Pica de Estats-era (3.145m.) Areatik (Lerida) abiatuz. Informazioa: 456 23 26.

Durango (Tabira): Mendar-Arno (628 m.)-Ondarroa. Tel: 681 34 32.

Donostia (C. V. Camping): Cauterets, Monne gailurra (2.726 m.), Cambasques. Informazioa: 42 84 79.

Ordizia (Mendizaleak): Panticosara ostiralean, hilak 1, abiatuz.

Arrigorriaga (Padura): Pica d'Estats hilaren 2, 3 eta 4rako. Informazio gehiago: 671 03 45.

Altsasu (Mendigoizaleak): Arrarats-Leitza.

Maule (Bortukariak): Pista-Ardane. Tel: (07-33) 59 28 15 56.

Laudio (Goikogane): Gorliztik Ermua mendira. Tel: 672 50 21.

IKASTAROAK

▼ Uztailak 4-10

Bilbo (Bizkaiko Goimendi Eskola): Alpinismo ikastaroa Mont-Blancen. Hamar lagunentzako dago lekua. Informazio gehiago 681 85 22 telefonoan.

ALBISTEAK

Gasteiz (Manuel Iradier): Hiru Handien martxan 438 mendizale atera ziren. Zalduondora, 91 kilometro osatu ondoren, 243 iritsi ziren: 59 arabar, 89 gipuzkoar, 84 bizkaitar eta lau nafar; gainerakoak espainiarrak ziren.

MARRON — ZAZPI HAUNDIAK

- ▲ Everest 8.848 m. — 1993-5-6
- ▲ Kilimanjaro 5.895 m. — 1994-5-3
- ▲ Makinley 6.236 m. — 1994-6-8
- ▲ Elbruk 5.633 m.
- ▲ Kartenz Piramidea 5.542 m.
- ▲ Vinson 4.897 m. ▲ Aconcagua 6.960 m.

Zorionak
Marron

GENERALI
ASEGURUA
IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

